



2012KO AZAROAREN 29KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko azaroaren hogeita bederatzian, iluntzeko zapi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak, bilkurari hasiera eman eta esaten du eguneko gai zerrendan barneratuta dagoen "Desjabetzeen inguruko mozioa" puntuaren inguruan hiru testu daudela, udala osatzen duten hiru alderdienak, eta horren aurrean gaia eguneko gai zerrendatik ateratzea proposatzen duela, datozen egunetan denen artean hitzegin eta gaiaren inguruko kontsentsua lortzeko helburuarekin.

Denak ados daudenez, desjabetzeen inguruko mozioa eguneko gai zerrendatik kendu egiten da.

Estensoro zinegotziak (EAJ) hirigintza batzordearen aste honetako bilkuraren inguruan gertatutakoaren aipamena egiten du, berari bilkurarik ez zegoela esan bai zion alkateak eta horregatik ez zela bere alderditik inor azaldu bilerara.

Alkateak erantzuten dio baietz, komunikazio arazo bat egon zela hor eta saiatuko dela etorkizunean horrelakorik gerta ez dadin. Gaineratzen du dena den EAJko bi zinegotzi aparejadorearekin egon zirela geroztik eta honek bileran hitzegindakoaren berri zabala eman ziela.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian bertaratutako onespenera aurkezten dira 2012ko uztailaren 27an eta irailaren 24 egindako ohiko bilkuretako eta urriaren 4an, urriaren 22an eta azaroaren 13an egindako ez-ohiko bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Eskatutako argibideak eman ondoren Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.



Une honetan Albisu zinegotzia aretotik irten egiten da.

III.- ITURGAITZAGAKO ERROTONDA LANEN 3. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko errotonda lanen obra zuzendaritza daraman IKAUR, S.L.-ko Miguel Salaberria ingeniariak lanen 3. obra-egiaztagiria luzatu du. Lanen 3. obra-egiaztagiri honen zenbatekoa EHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI MILA ETA ZAZPIEHUN EURO ETA HIRUROGEITA SEI ZENTIMotakoa (179.700,66 €) da. Lan hauek GORAIKI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko errotonda lanen 3. obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

IV.- KANPANDEGIKO ERROTONDA OBRA PROIEKTUAREN ALDAKETA.-

Jarraian bere onarpenera ekartzen da osoko bilkura honetara "Kanpandegiko Errotonda Proiektuaren aldaketa" dokumentua, Soroa Arquitectos, S.L.P.ko Pedro Izaskun eta Miguel Angel Irazabalbeitia arkitektoek eta Endra Ingenieros, S.L.ko Pedro Azkue ingeniariak izenpetutakoa, 2012ko abuztuko data duena eta Euskal Herriko Bide, kanal eta Portuen Ingeniarien Elkargoko 021864 zbk.dun bisatua daramana, 2012ko azaroaren 7koa.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du beraiek eskatzen dutena beheko aldeko espaloia, meandroarekin lotzen duena, mantentzea dela, lehen proiektuan zegoen bezala, ta gehitzen du orain hori egiteak ez duela kosturik eta gero ere egin egin beharko dela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ados dagoela EAJk egindako proposamenarekin, beti ere hori egiteko aurrekontua baldin badago.

Alkateak esaten du eskatzen dutena eztabaidatu litekela hirigintza batzordean eta irekita uzten duela baina gaurrako hirigintza batzordean hitzegindakoa aurkeztutako proposamena dela.

Estensoro zinegotziak esaten du oinezko pasarela sartzeari onartuko balitz alde bozkatuko luketela baina bestela abstenitu egingo direla.

Serna zinegotziak esaten du alde bozkatuko duela baina ikusten duela ondo egongo litzakela EAJk planteatzen duena.

Gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 8 botu (Bildu, PSE-EE), aurka boturik gabe eta 4 abstentzioz (EAJ) Kanpandegiko obra proiektuaren aldaketa proposamena onartu egiten du.

Patxi Albisu zinegotzia bilkurara bertaratzen da berriro.

V.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 3 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-



Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Estensoro zinegotziak (EAJ) kreditu aldaketaren baliabideetan eta Kanpandegi - Errotondaren obra zuzendaritza gastuari aurre egiteko Kanpandegi - Meandroa Unitatearen aportazioa jartzea planteatzen du.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ez zaiela gaizki iruditzen EAJk proposatutakoa.

Eztabaidatu ondoren alkateak ontzat ematen du aldaketa hori proposamenean sartzea.

Gaia eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratutako guztien aldeko botuekin, honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 3 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealak	35.000,00 €
VII	Kapital transferentziak	534.238,23 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		569.238,23 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
------------	-------	------------



I	Zerga zuzenak	10.000,00 €
II	Zeharkako zergak	47.000,00 €
III	Tasak eta bestelako sarrerak	18.000,00 €
IV	Transferentzia arruntak	236.985,56 €
VI	Inbertsio errealeen besterentzea eta bestel.	112.838,05 €
VII	Kapital transferentziak	35.000,00 €
VIII	Finantza aktiboak	109.414,62 €
GUZTIRA		569.238,23 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta hogeit direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



[Handwritten signature in blue ink]